

**15/2019 TXOSTENA, EKAINAREN 28KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA****GAIA: DEKRETU-PROIEKTUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK KUDEATZEKO EREDUARI BURUZKOA.****I.- AURREKARIAK.**

Gizartearekin erlazionatzeko era berrietara teknologikoki eta antolamenduaren aldetik egokitzeko eta administrazioa modernizatzeko prozesuan, azken urteetan, zenbait arau onartu dira. Horien artean otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua nabarmendu behar da (informazio- eta telekomunikazio-sistemen plangintza, antolaketa, eginkizunen banaketa eta kudeaketa-modalitateak arautzen dituen). Dekretuaren xedea izan zen informazioaren eta komunikazioaren teknologiak antolatzeke oinarriak ezartzea, arlo horretako politika estrategiko bateratua bermatzeko.

Hala ere, prozesu horrek trabak izan ditu –koordinazioari dagokionez, behintzat–, azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoak izan duen deszentralizazioagatik; izan ere, zenbait erakunde sortu dira, eta, ondorioz, negozio juridikoak ugaritu, eta agerian jarri da planifikatzeko behar handiagoa dagoela, kudeaketa-eredu bat lortzeko, ekonomikoki bideragarria, eta hau saihestuko duena: independentzia zein elkarreragintasan eskaseko azpiegitura teknologikoen sarea, are bateraezina.

Egoera horri erantzuna emateko, onartu behar den Dekretuak helburutzat du kudeaketa-eredu berri bat arautzea. Eredu horren xedea da informazioaren eta komunikazioen teknologien arloan (aurrerantzean, IKT) politika komun eta bateratu bat ezartzea eta bultzatzea, eta, Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuak dioenez, «IKTen arloan bateratasuna ahalbidetzen du; administrazio publikoaren funtzionamendu-gastuak arrazionalizatzeko aukera ematen duten kudeaketa-elementuak txertatu nahi ditu; [...] eta eskuragarri dauden baliabideak maximizatzea ahalbidetzen duen efizientzia operatibo



handiagoa lortu nahi da, kudeaketa errazagoa eta eraginkorragoa bultzatzen duten konponbide teknologikoen estandarizazio- eta integrazio-neurrien bitartez. Horrela, errazago izango da konponbideak berrerabiltzeko mekanismoak sustatzea eta behar komunak antzematea, eta, era berean, bideragarritasun ekonomiko handiagoa lortzea, mota guztietako bikoiztasunak saihestuta eta informazioaren eta komunikazioen teknologietan egiten den inbertsioaren etekina handiagotuta».

## **II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK.**

### **TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.**

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua zera ezartzen du: «Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko dira».

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz:

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, haiek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Xedapen-proiektuaren xedea ez denez sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

## **III. – EDUKIA.**

Zati hauek ditu dekretu-proiektuak:

- Azalpen-zatia.
- Xedapen-zatia, 4 kapitulutan antolatutako 21 artikulurekin.
- Xedapen gehigarri bat.
- Bi xedapen iragankor.
- Xedapen indargabetzaile bat.
- Hiru azken xedapen.

Laburki, honako hau da Dekretuaren kapituluaren edukia:

- I. Xedapen orokorrak.
- II. Plangintza estrategikoa.
- III. Egitura organikoa eta funtzionala.
- IV. Kudeaketa- eta kontratazio-araubidea.

#### **IV.- OHAR JURIDIKOAK.**

Gorago jasotzen den edukiaren laburpenak, Dekretuaren xedeari buruzko 1. artikuluekin batera, azterna ematen digu arauak zer asmo duen: arautzen dituen teknologiei buruzko kontratazioari ere eragitea.

Horrez gain, plangintza estrategikoa, 4. artikuluan aipatzen baita, IKT zerbitzuak hirugarrenekin hornitzeko strategiari buruzko apartatu bat dauka.

5. artikulua zerbitzu bateratuak eta ez-bateratuak desberdintzen ditu, argi utzita zerbitzu bateratuak EJIek eskainiko dituela, teknologia kudeatzeko organoa delako, nahiz eta oraindik ez den adierazi nola esleituko zaizkion zerbitzu horiek emateko eskumenak.

III. kapituluak, egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa bera, Gobernu Kontseiluari ematen dio IKTen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena, eta IKTen Batzorde Estrategikoa sortzen du. Batzordearen funtzio edo eginkizunen artean honako hau dago: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailek eta erakundeek IKTak kudeatzeko eredian izango duten hornidura-politikaren oinarritzko gidalerroak definitzea (10. artikuluko f) letra). Hemen, komenigarria litzateke ohar bat gehitzea, funtzio publikoko jarraibideekin eta kontratazio publikoaren araudiarekin bat etorritz, «hornidura» termino oso zabala delako, giza

baliabideak nahiz baliabide materialak barne hartzen dituenek. Halere, dirudienek, Batzorde Estrategikoaren osaerak kontuan izan du.

Kapitulu berean dugu 13. artikulua, zeinak ezartzen baitu zer funtzio dituen IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzak (aurrerantzean, IKTZ), eta, haien artean, i) letran jasotzen dena nabarmentzen da: «Teknologia kudeatzeko organoarekin, alegia, EJIE sozietate publikoarekin, egin beharreko enkargu orokorra prestatzea (...)» Era berean, funtzio hau jasotzen du j) letrak: «Beste edozein enkargu egitea, IKTen organo kudeatzaile administratibo gisa dituen funtzioak betez».

Beraz, IKTak kudeatu beharrak dakartzan funtzioak –bateratuak, behintzat– bideratuko dituen negozio juridiko mota zehazten ari da: baliabide propio pertsonifikatuei enkargua egitea. Bi legek eratzten dute figura; batetik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 86. artikuluan –ez da oinarritzko artikulua– lehen hurbilketa bat egiten du «baliabide propioa eta zerbitzu teknikoetara», eta definitzeko jarraibide orokorrak ematen ditu), eta, bestetik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL), zeinaren bitartez Espainiako ordenamendu juridikora eraman dira 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak.

SPKLk dagokion kooperazio bertikaleko sistema ezartzen du 31. artikuluan, «bitarteko propio pertsonifikatuen» erabilera oinarri hartuta, eta, 32. eta 33. artikuluetan, pertsona juridiko jakin bat bitarteko propio pertsonifikatu izateko jarraibideak zehazten ditu, bai eta egin dakizkiokeen enkarguen baldintzak ere.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua) enkarguen araubidea ezartzen du 62. artikulutik 64. artikulura –araubide juridikoa, ekonomikoa eta administratiboa, hain zuzen ere– eta adierazten du enkargua egiten duen erakundeari dagokiola enkargu hori behar bezala betetzen den gainbegiratu edo ikuskatzea, baliabide propioa atxikita dagoen erakundeko edo saileko organo eskudunak onartu beharko dituela tarifak, ondoren ordaintzeko, eta baliabide propioari dagokion sailak onartu behar dituela dagozkion enkarguak.

Esku artean daukagun dekretu-proiektuarekin jarraituz, sektore publikoko erakundeen eta sailen eskumenei buruzko 14. artikuluan, 1. apartatuko f) letran, adierazten da «IKTen arloko zerbitzu eta ikerketa berriak sartzeko, garatzeko eta trukatzeko xedez beste administrazio, erakunde edo enpresa publiko zein pribatu batzuekin egiten diren akordioak, hitzarmenak eta lankidetzak» IKTen

Batzorde Estrategikoari jakinarazi behar zaizkiola, sinatu aurretik. Egoki irizten diogu, zerbitzuak eta ikerketak trukatzeko bide nagusia izan behar duelako, eta arlo honetan sinatuko diren kontratuen komunikazioa txertatu behar da, baita ere.

Eta, orain, IV. kapitulua aztertuko dugu. Gure txostena egiteko interesgarriena da, IKTak kontratatzeari eta kudeatzeari buruzko araudiaren ingurukoa da eta.

15. artikulua sektore publikoko IKT zerbitzuen kudeaketa bateratuaren eredia du gaitzat. Lehen aipatu dugun 116/2016 Dekretuan ezarritako terminologiaren arabera, 15. artikuluan, baita ere, proposatzen dugu kudeaketa bateratuaren eremua aipatzea.

Bestalde, dekretu-proiektuak 15. artikuluan kudeaketa bateratu gisa kalifikatu dituen zerbitzuak bat datoz, hein batean, 5. artikuluan zehaztutako zerbitzu bateratuekin. Horrenbestez, badirudi zerbitzu bateratuak eta eremu bateratua gainjarri egiten direla, eta ez da argi geratzen bi terminoen arteko desberdintasuna. Argitzea komeni litzateke.

16. artikuluari dagokionez, argitu beharko litzateke ea edozer motatako kontrataziori egiten dion erreferentzia, dela kudeaketa bateratukoa dela kudeaketa ez-bateratukoa. Eta, gainera, desberdindu egin behar da IKTZko kide bakoitzak kontratazioaren arloan duen zeregina; izan ere, 3. Apartatuaren arabera, IKTZk baldintza teknikoek agiriari buruzko txostena egingo du; eta, 4. apartatuaren arabera, Zuzendaritzako kideren bat mahaiko kide izango da. Hau da, argi geratu behar da kontratazio-organoa IKTZko zuzendaria dela. Halaber, pertsonal teknikoak egingo du plegu edo agiriari buruzko txostena, eta pertsonal hori izango da mahaiko kide.

Hori ezingo litzateke horrela izan IKT zerbitzu bateratuak kontratatuz gero; izan ere, 18. artikulua adierazten duenez, IKTZ izango zen zerbitzuak kontratatze organoa. Eta, esaten denez, esleipen horrek enkarguak egitea barne hartzen du (18.2 artikulua), baina, enkargu-egile gisa? Enkargua agintzen duenari dagokionez, azken xedapenetako bigarrenarekin egiaztatu behar da; izan ere, xedapena aztertzean ikusiko dugunez, kontraesan bat dago. Baina, orain, 18. artikulua aztertuko dugu; 3. apartatuak IKTZri esleitzen dio nola betetzen edo egikaritzen diren gainbegiratzea. Egikaritzearen kontua gainbegiratzea kontratuaren arduradunari bakarrik dagokio (SPKLren 62. artikulua), ez kontratazio-organoei ez enkargua egiten dutenei. Laburbilduz: kontraesanak mugatu eta ekidin behar dira kontratazio-organoren, enkargua agintzen duen organoren, kontratazio-mahaiko kidearen, pleguei buruzko txostena egiten duen pertsonalaren eta kontratuaren arduradunaren artean. Ez dugu ahaztu behar, ezta

ere, 116/2016 Dekretuaren 62. artikulua arabera, enkargua agintzen duten erakundeek enkargatutakoa behar bezala betetzen dela ikuskatu behar dutela.

19. artikulua, «concertar» (itundu) terminoa ez da egokia. Eta berriz hausnartu behar da 2. apartatuaren inguruan: kontratazio-organo batek beste bati ahalmenak nola eman behar dizkion jakiteko, eskumenen eskuordetze bat egin beharko litzateke. Hitzarmenak eta agiriak edo pleguak aipatzea ez da beharrezkoa, salbu eta eskumenak eskuordetzen ez dituzten erakundeen artekoak badira eta agiriak edo pleguak hitzarmenaren beraren isla baino ez badira. Hala ere, agiriak edo pleguak ezin du eskumenak esleitzeko tresna izan.

20. artikulua: prestazioa EJIEk egin behar badu (eta, IKTen gainerako baliabide propioak?), ez dauka zentzurik inolako sailtako kontratazio-organorik egotea. Enkarguen bidez egingo da dena. 2. apartatua, IKTZk finkatzen ditu tarifak, eta «sozietatea bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa baliatzen duten gainerako erakundeek ere hartuko dute parte, hala badagokie». Hain zuzen ere, hau dio 116/2016 Dekretuaren 63. artikulua: «Guzatu beharreko prestazioen zenbatekoa zehazteko, sailaren organo eskudunak edo baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa atxikita dagoen erakundearen organo eskudunak alde aurretik onartutako tarifak hartuko dira aintzat. Tarifa horiek, halaber, finantza-nahikotasuneko irizpideak kontuan hartuta eta kasuan kasuko azterketa ekonomikoa egin ondoren zehaztuko dira».

Bestalde, EJIE aipatzen da, bakar-bakarrik, nahiz eta beste baliabide propio pertsonifikatu batzuk dauden (nomenklatura hori erabiltzea komeni da) informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan.

20. artikulua 3. apartatuari dagokionez, Legeak onartu duen arren, beti adi egon behar da, kontratazio mugagabeak baliabide propio pertsonifikatuak urriak direla agerian utz dezake eta.

21. artikulua. Hitzarmenak –kontuz, ez daitezela kontratuak izan– aipatzen duen dekretuaren 13. eta 62. artikuluen arabera sinatu behar dira.

Xedapen gehigarri BAKARRA: ez da oso argi ikusten 2. eta 3. apartatuen arteko desberdintasuna. Eta, 2. apartatuari jarraikiz, enkargua egiten dutenak sektore publikoko erakundeak badira, ez da beharrezkoa 18. artikulua aipatzen duen enkarguak egitea. Berriz diogu: gauza bakoitza nork egiten duen argitu, eta gainjartzen ez direla zaindu behar da.

Ezin dugu alde batera utzi, ezta ere, azken xedapenetako lehena, 116/2016 Dekretua aldatzen duena. Izan ere, gomendatzekoa da aldaketa horiek artikuluen ordena errespetatzea.

Baina, orain, azken xedapenetako BIGARRENARI erreparatuko diogu, eta xedapen gehigarriarekin duen erlazioari, esaten baitu enkargu-egilea Gobernantza Saileko Zerbitzuen zuzendaria dela (2. apartatua; Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 71/2017 Dekretuaren 6. artikuluko 5. apartatuaren aldaketa aipatzen duenean), baina baita IKTZ ere (7. apartatua, 71/2017 Dekretuaren 20. artikuluko w) letra aldatzen duen heinean). Zenbait zuzenketa egiteaz gain, argi eta garbi zehaztu behar da nork agintzen duen enkargua, nork kontratatzen duen, nork gainbegiratzeko dituen enkarguak, nork kontratuak, etab.

Azken xedapenetako BIGARRENEAN, 2. apartatuan, kontuan izan behar da, baita ere, nor izango den kontratazio-organoa IKTen arloan, behar denean (71/2017 Dekretuaren 6. artikuluko 3. apartatuaren aldaketa). Azkenean IKTZ bada, lehen esan dugun bezala, zehatz-mehatz adierazi behar da horren zuzendaria izango dela.

Eta azken xedapen horren 7. apartatuan, uste dugu komeni dela zehaztea aipatzen diren aplikazioak INFORMATIKOAK direla.

Tarifak eta prezioak aipatzen direnean, argi utzi behar da nork proposatu eta nork onartu behar dituen.

Era berean, EJIeri buruz egiten diren aipamenak berrikusi behar dira, ITELAZPIra eta IZENPERa zabaldu behar diren ala ez aztertzeko.

Horrez gain, kontratazio-organoak nor diren esaten duten arau eta egitura-dekretu guztien aldaketa sartu beharko da, IKTen arloan dekretu honetara egokitzeko.

## **V.- ONDORIOAK.**

Dekretu-proiektuaren edukiak, sektore publikoko kontratazioarekin lotuta aztertu diren alderdietan eta baliabide propio pertsonifikatuei eginiko enkarguekin lotutakoetan, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeria eta gainerako

arauak betetzen ditu, baita sektore publikoko araubide juridikoarekin lotutakoa ere.

Hori guztia esanda eta egindako zehaztapenak eta oharrak aintzat hartuko direlako esperantzarekin, aldeko txostena eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko ereduari buruzko dekretu-proiektuari.